

GAUAREN BEHARRA

Ainhoa Urien Telletxe

Abadiño

Eguzki printza batek esnatu du, gelan isuri den argitasunak molestatu du; beste egun batez lan egin beharko du fakturei aurre egiteko, zergak ordaintzeko... eta hilaren amaieran aurrezkitxo batzuk gelditzen bazaizkio, baliteke apetaren batekin ausartzea. Guztiek dakite nolakoa izango den haien etorkizuna; hipoteka batek estutuko dio lepoa, enpresako nagusiak ez dio begirik kenduko eta berak obeditu egingo du, kaleratua izango delako mehatxupean. Agian ezkonduko da, apika seme-alabak izango ditu, beharbada amona izatera ere iritsiko da, jubilatzean, IMSERSOko bidaia horietan pasatuko ditu hamabost bat egun Benidormen; geroago (edo lehenago) hil egingo da, denbora tarte batez malakoek eta penek itoko dituzte barrenak, baina gero ahaztua izango da, unibertsoko infinitate eternoan galdua, inoren arretarik eskuratuko ez duen izarra izango da, distiratsua ala ez, urruna edo hurbila; baina finean, ezdeusa, hutsala.

Ohetik jaiki da, gorputzera itsatsita zituen izaretara bueltatuko zelako errezeloz, pertsiana zabaldu

du, eta zer utzi du atzean? Beste egun bat da, aurre-ra begiratuta ez du inporta atzean uzten denak. Etxekoak amaitu eta kalera atera da, zuzenean joan da metrora eta pairugabeko itxaron die erlojuko orratzei, hiru minutu falta baitira metroa iristeko.

Bulegoan egon da goiz osoan eta eguerdian sandwich batekin baretu ditu tripazorriak. Arratsaldea ere bulegoan pasatu du, txostenak egiten, aurrekontuak prestatzen, fakturak antolatzen... ordenagailuaren pantailak ia itsutu duen arte. Orduan, paretako erlojuari begiratu bezain pronto irribarrea marraztu zaio aurpegian.

Goizeko ibilbide bera eginda itzuli da etxera, erakusleihu berdinei erreparatu die, kaleko harlauza berdinak zapaldu ditu, tabernak jendez mukuru ikusi ditu, eta han urrunean itsasoa dagoela sinetsi du. Eta zergatik ez dena utzi eta alde egin? Bere buruari kolpetxo bat emanda esnatu da fantasia horretatik. Inozotzat jo du bere burua horrelako ameskerietan aritzeagatik, errebeldia bete-betean sartu berria den nerabea bezala.

Etxera igo da, giltzak sarrerako atearen ondoan dagoen mahaira bota ditu, jaka erantzi eta hozkailua zabaldu du; garagardo bat behar du. Arratsaldeetako bizioaren botila hartuta, honen droga osagarria behar izan du eta telebistaren aurrean eseri da. Programa ganorabako horietako bat jarri du eta lasaitu egin da, baretu da bere dosia hartu ondoren. Leihotik at dauden laino urrunei begiratu die, eta nostalgia gozo bat sentitu du.

Eguna erretiratzen hasi da gaua gailentzen den honetan; gaur gau izartsua izango da, orban zuriz apaindutako teloi beltza.

Ordenagailuaren aurrean eseri da egunkaria irakurtzeko asmoz; ez zaizkio erraz apurtzen diren berripaper horiek gustatzen, eta horregatik irakurtzen du formatu digitalean; baita ere, albiste guztiak berrituta irakur ditzakeelako. Horrenbeste aurreratu da teknologia...

Egunkaria irakurri ondoren pixka bat baretu zaizkio barrenak, pertsona jakintsu legez sentitu baita munduko zorigaitzak aurpegiratu dizkiotenean.

Afaria prestatzen hasi da, eta bitartean telebista piztu du; albiste onak entzungo dituelako esperantzan, ea argiari pasatzen uzten dion paretako zuloa aurkitzen duen gela ilun honetan. Aitaren batean afaldu, mahaia batu, harrikoa egin eta balcoira hurbildu da. Ilargiari eta zeruari begira jarri da pentsakor, unibertso infinitua du bere aurrean eta ezin du ezer egin ia adurra dariola liluratzea baino.

Gutziz akituta dago; lanak gogor astintzen du aspaldion fisikoki, eta eguneroko dudedek, ardurek... jasangaitz egiten diote gauean hamarrak baino beranduago ohera sartzea. Beraz, birritan pentsatu gabe eta automatikoki; dutxa azkar bat hartu, pijama jantzi eta ohera sartu da. Gaumahaiko erlojuari erreparatu dio, eta badirudi egunez orratzek beruna dutela; gauean, ordea, bizkortu egiten dira orratzok.

Irakurtzen ari den liburua eskuartean hartu du eta zabaldu bezain pronto itxi du. Damutu eta berriro ere zabaldu du, hitzak gustura irakurri ditu bat-batean, esaldiei nolabaiteko zentzua topatu die behingoz, eta konturatu orduko hogeit hamar orrialde irakurri ditu. Liburua itxi eta hasperen sakona egin du; bularraren kontra estutu du eta bere sentitu ditu liburua eta istorioa. Burkoa malkoz umeldu du eta aspaldiko partez, hustu den era berean asetu da.

Negar egin du eta pozik sentitu da, penatuta dago eta alaitasunez beterik sentitzen da. Behingoz iritsi da gaua, bere momentua, bere ordua; egunari errepassoa bere erara emango diona, inongo katerik gabe, egundo izan ez duten askatasun horrekin. Gauaren beharra. Gaua gauekoentzat delako, gaueko sentitu da momentu batez, gautar, gauzale, gautxori.

Argia amatatu, ohean lekua hartu eta izaren itsaso zabalean igerian hasi da. Goizeko seietan jotzen duen iratzargailua desaktibatu du. Bihar larunbata da.

“Eguzki printza batek esnatu nau; eguzkia, hain gertu dagoela dirudien arren, hain urrun dagoena. Ez dakit zerk bultzatzen duen eguzkia egunero sortaldetik atera eta sartalderaino joateko, ez dakit zer derrigortasun duen guri argia eta berotasuna emateko, ez dakit lainoak aurrean jartzen zaizkionean triste edo pozik dagoen. Ez dakit, eta zer? Ba ez, ez dakit eta ardura dit jakiteak, milaka gauza ditugu gure buruan jira-biraka eta ez dakigu gauzarik beti-

koena zer den, zergatik dagoen, zertarako joaten den. Ezjakinak gara eta ez zaigu ardura ezjakin izaten jarraitzea; baina nik ez dut nahi horrela jarraitzerik, ongi da, desberdina izango naiz, berezia agian, ez litzaidake bada berezia ez izatea gustatuko. Nik jakitea nahi dut, jakitea behar dut.

Ohetik altxatu eta neure etorkizunean pentsatzen hasten naiz, sarri esaten baita guztiok dakigula nolakoa izango den gure etorkizuna, gutxi gorabehera bada ere. Baina nik ez dakit eta besteez dakitenik ere ez dut uste; absurdua da, eta norbait jakiten badu, tristeza iruditzen zait. Oparia zein izango den eguna baino lehen jakitea bezalakoa da hori, bere magia galtzen du, jada ez dago irrikarik oparia biltzen duen papera erneguz apurtzeko. Bizitzeko gogoia galtzen da, noizbait izan baduzu, biharko sorpresa zein den dakizunean. Baliteke bihar dena aldatzea eta garena izatetik ezer ez izatera pasatzea, edo ezer ez garen honetatik benetan garena izatera. Zenbat konbinazio ezberdin izan ditzakeen etorkizunak! Zertarako bakarraren bila ibili, mila etorri ahal bazaizkizu? Beraz, nik ez dakit zein izango den nire etorkizuna, eta ez dut jakin nahi. Ziurrenik, jakin nahi dudana gauza bakarra izango da hau.

Ene! ia ahaztu zait zertan nenbilen; egunari neure erako errepassoa ematen diot gauero, goizetik hasita, baina goizeko lehen ordukoaren gogoe-ta egiten hastean haria galdu eta ni ere ideien kolapsoan galtzen naiz, horietatik bat aukeratu eta mamitu egiten dut ezer geratzen ez den arte,

orduan, ezer hori zer den bilatzen saiatzen naiz. Gaua da nire burmuineko joan-etorrietan hamaika ideien elkar jotzea eragiten duena.

Etorkizunaz gauza bakarra dakit, denok esku hutsik hilko garela ordu kunplitian. Zer gertatzen ote da heriotzaren momentuan? Horrek kitzikatzen nau gehien; eta zer dagoen gero, zerbait egotekotan.

Metrora joaten naizenean jendearengan jartzen dut arreta. Harrigarria da horren leku txikian zenbat jende ikus daitekeen. Nik jendearengan pentsatzen dut, beraien bizitzak asmatzen saiatzen naiz; baina, aldiz, jendeak ez du inorengan erreparatzen, bakoitza bere gauzez baino ez da arduratzen, jendeak ez dio elkarri begiratzen. Egunero ikusten dudana panorama bada ere, egunetik egunera gehiago harritzen naiz. Metrora heltzeko zenbat minutu falta diren jakiteko erlojuari begiratzen diodanean, orratzetan begirada pausatu eta liluratu egiten naiz. Errealak ote da denbora? Agian denbora ez dago; abstraktua da, ameskeria, baina dagoen bezala jokatzen dugu. Edo baliteke denbora egotea eta orduak izatea abstraktuak. Dena kontrolatzeko dugun premia honekin egunak gaua errenditzen dueneko ordurik nekatuenari marra ezarri beharra daukagu, ordena desira baitugu ustez ordenara bidean den gizarte kaotiko honetan.

Bulegoan dagoen isiltasunak eta bakardadeak nire bizitza zein tristea den pentsarazten didate. Guztia utzi nahiko nuke, joan, betiko desagertu,

eta behingoz benetan naizena izan, sentitzen dudan hori lau haizetara zabaldu, libre bizi, nire kontzientziaren gatibu bakarrik, ezintasunak ahaztuta.

Baina badut barrenean hori egitea eragozten didan zerbait, soka batek lotzen nau paradisia dakarren amildegiaaren salbazioko hesira. Ezin dut, edo ez dakit soka hori nola moztu eta takarradaz-takarrada egunerokotasunaren zama gero eta astunagoa lepoan hartu eta aurrera egitea baino ez zait geratzen. Sarritan pentsatzen dut, gehienetan, bizeitza derrigorrezko zerbait dela. Badaude bai momentu gozoak, irribarrea eragiten digutenak, negar egiten dugun momentu ederrak, eta goizero sortzean berpizten den sua. Baina kasu konkretu batzuetatik aparte, sarri derrigortasun batek preso hartzen gaitu eta bizitzera behartu, itxaropenera behartzen gaitu.

Bulegoko kartzelatik irteteko ordua heltzen denean marrazten zaidan irribarrea betirako iltzatu-tuko nuke neure aurpegian; baina ezin dut, egia esan, ez dakit norbaitek ahalko duen. Umetan, zoriontasun eternoan sinesten nuen, harekin amets egiten nuen; noizbait gauzatuko zelako esperantzarik banuen, horiek, lehen tristeziekin astindu ninduten haize enbatek eraman zituzten, eta ez dira berriro itzuli, ez dira itzuliko.

Bulegotik etxera noanean kaleko jesarlekuetan pausatzen dut begirada. Ez dago banku bat bera ere erlaziorik ez duten bi pertsonen okupatuta; Aristotelesekin sozialak garela esan zuen. Ni ere

baiezkoan nago, baina uste dut gizartearen behar hori asetzeko nahiko dugula jendartean egotea, ez dugu inoren begirada edo aholkurik nahi, eta ez dizkiegu beste batzuei ere ematen. Penatuta burua itzuli eta nora goazen galdetzen dut, nondik gatozen, zer garen, zer izan nahi dugun, zerbait bagaren. Aurrera jarraituz espaloiko baldosei begiratzeko diet, ez dakit zergatik, baina jada ez dut bizitzeko gogorik, ez naiz arazoei aurre egiteko gai eta gauza batek baino ez nau tinko mantentzen, neure buruarekiko maitasunak. Ez da hilko ez, eusten nauen arrazoia; maite dut neure burua, eta hori horrela den artean behintzat, ez naiz eroriko.

Kale bitartetik ikusten diren mendiei so geratzen naiz, eguzkiak begiak itxiarazten dizkidanean; momentu batez sinesten dut itsaso bat badela, badakit badirela hondartzak, eta harantzago urezko basamortuak. Hamabi bat urte izango nituen itsasoa lehen aldiz ikusi nuenan, liluratu egin nintzen, urtu, horren txiki sentitu nintzen bat-batean. Aitonaren alzheimer gaixotasunak lotuta gintuen, ez ginen etxetik ateratzen, nire amak lana utzi zuen aitona zaintzeko, amona ere jada nahiko ezgauza baitzen. Aitona hil zenean denok egin genuen negar etxean, baina nire ama aski lasaitu zen, izan ere, sekulako pisua baitzen orduro aitona ganean egotea. Aitonaren heriotzatik errekuperatu ginenean, gurasoek oporretan joatea pentsatu zuten. Guztiok joango ginen oporretan, amona, ni eta gurasoak. Nire lehen oporrak zirenez, irrikaz jaso nuen berria eta ia hilabete lehena-

go hasi nintzen gauzak prestatzen. Kostaldera joango ginen, Mediterraneoko ur epeletara; astebetetz hoteletik hondartzara joatea baino ez zen izango gure zeregina. Honela ikusi nuen lehen aldiz itsaso. Gaur oraindik, irrika berdinak liluratzen nau, barnean oporraldi hartan nire gorputzean apurtutako olatuak sentitzen ditut, eta haiekin batera ozeano infinitoetara joatea baino ez dut desira. Korronteak eramane nazala, olatuek astin nazatela; zilar kolore bizia uraren bizkarretik alde egiten ikusi nahi dut, zerumugara noizbat ailegatu, eta han geratu, betiko, eguzkia egunero irtetzen ikusteak beste zereginik gabe. Korronte horiek, noizbait kai galduren batera eramango naute, han egongo naiz, ni bakarrik, eta ezinegona sentitzen badut, belauntziko oihalak haizatu eta harantzagoko kostaldeetarantz nabigatuko dut, haizeak laguntzen didan heinean.

Askotan amets egin dut horrekin. Urrutiko itsasoetatik harantzagoko kostaldeetarantz joan, itsasontzietako nabigatzaileen zapi zuriek portuko negar malkodunei agur nola dagieten ikusiz. Batzuetan pentsatzen dut horiek gaztetako ametsen errautsetan geratutako txingarrak baino ez direla, baina ez, denok egiten dugu amets, eta denok dugu beteko direlako itzaropena.

Etxera ailegatu, neure garagardoa hartu eta telebista pizten dudan instant horretan, aitortu behar dut zoriontsu naizela. Bai, badakit telebistarekin manipulatzeko gaituztela, baina badakigu gezur baten burbuilean bizi garela, eta gezur hori sinestu

nahi dugu, zerbait garela uste dugun honetan; baina nire azken aurkikuntza ezertarako inor ez garela eta inorentzako ezer ez garela izan zen.

Gaua eguna jaten hasten denean izarrei begiratu eta neure amona zenaz oroitzen naiz; hark esaten zuen: “arazoa ez da izarrak atzamar puntekin ez ukitzea, arazoa da izarren argia begiekin ikusi ezin izatea”. Gure amonak ez zuen ikasketarik, irakurtzen eta idazten baino ez zuen ikasi; baina inork baino gehiago zekien. Gauetan, lotarakoan, ipuinak kontatzen zizkidan eta nik lo plantak egiten nituen bere ahots goxoaz kantuan has zedin. Gogoan dut, San Juan bezperako gauean, baserri aurreko harizpeetan pizten genuen su txikia. Etxe gutxitan pizten zen sua tradiziogatik, gehienetan derrigortasun huts bategatik pizten baitzen. Gogoan dut amonaren amantal urdin koadroduna, erdiko poltsikoan esku zartatuak, sufrituak, gordezten zituen. Bere esku bateko atzamar okertu batean alargunduta egon arren sekula kentzen ez zuen eraztuna zuen. Aurpegian zituen bi kristal zatien atzeko begi txikiak, oraindik poztasuna mantentzen zutenak, suaren isladak bere barneko txingarra are gehiago pizten zuelarik. Eta suak ida multzo hura menderatzean, orduan hasten zen amona kantuan orduan jalgitzen zitzaizkion barrutik antzinako koplak zaharrak, aineratzen zituen amonak, niregatik kantatzen zuen arren, beretzat ere kantatzen zuen. Barne askapen bezalako bat zen berarentzat, agian, bera ere umetako aroez oroituko zen; ez dakit, ez nion sekula galdetu. Muxurik ede-

rrena emanda agurtzen ninduen amonak, maite nuen amona, maite nuen aitona; baina izugarria zen biek elkar zenbat maite zuten konturatzea.

Egunkaria irakurtzeko ordenagailuaren aurrean esertzen naizenean, urte gutxitan teknologiak zenbat aurreratu duen ohartzen naiz. Bai, teknologiak bai, baina aurreratu behar horrek gure harremanak paralizatu ditu; eta hori galtzen ari garen heinean, gure kulturak, tradizioak... hau da, ahoz transmititzen den guztia galtzen ari gara. Aitortzen dut ni ere interneten mirabe naizela, baina asebeste egoteko motiboa dut; izan ere, konturatu egiten naiz, eta konturatze horrek erreakzionatu arazten dit.

Telebistak egunkariak beste berri txar aurpegi-ratzen dizkit, eta momentu batean, mundu honen kartzelako azken leihoa itxi zait begien aurrean. Desesperatu egin naiz, etsi dut, aitortzen dut ezin dudala gehiago; burua bueltaka hasten zait, iragan hurbilak jaten nau. Eta bat-batean argia, leihoak zabalik, iragan hurbilak iragan urruna gogorarazi dit berriro ere; haurtzaroko inozentzia hartara itzuli nahi nuke, jolastea beste derrigorrik ez genuen efemerideetara. Gogoan ditut, gerrari buruz aitona kontatzen zizkidan istorioak, akordatzen naiz nola harrapatzen genituen txiritxi-riak, eta gogoratzen naiz amonarekin batera kamamilak batzen genituela, gero kristalezko ontzi gardenetan gordetzen ziren eta sabeleko minarekin gogorik gabe hartzen zen. Hala ere, aitona beti zioen ez zegoela ginebrarekin ezpainak busti-

tzea baino botika hoberik tripako minak baretzeko. Irribarre maitakor bat ateratzen zait hori pentsatzen dudan aldiro. Umetan, denok handitu nahi dugu eta orain berriz, oroitzapenen bonbardaketa nostalgikoek itzuliko ez diren garai haiek bueltatztea baino ez dute nahi.”

Honela amaitzen du bere errepassoa, bere gogotak azaleratzen ditu, eta barrua husten duen era berean asetu egiten da. Itzela da eguneko momentu hau ailegatzea. Lo egiteko desiraz begiak itxi dituenean, pentsakor jarri da eta bai, ipuin bat idatziko du. Aspaldian dabilzkio hamaika ideia ipuin bat idazteko, eta bat aukeratu eta beste guztiak baztertu ordez, horiek guztiak bat eginda ipuin bat idatziko du. Berriro ere argia piztu, tiradera zabaldu, koadernotxoa hartu eta idazteari ekin dio:

1992ko udagoieneran izerdi hotzez blaituta dauka azala erditzera doan emakumeak. Alboan bere senarra zutik dago, bien esku ahurrak parekaturik dituztela eta leunki elkar ferekatuz direla dirudi, baina gizon mardulak gogor eusten dio eskua bere barneko gizaki berria ukaiteko sufrimendua pairatu bide duen emazteari. Emakumearen belaunburuetan eskuak jarrita, etorkizuneko amona bere ilobatxo berria noiz irtengo zain dago. Amonaren ezinegonak are gehiago urduritzen du alaba. Aitona, oster, egongelako leihotik beha dago ilargi betearen distirak aurpegi beltzarana argitzen dion bitartean. Betazalak pisutsu zaizkio eta begi niniak estaltzen dituen aldiro ametsen zeruan hegan hasten da...